



Gazteak eta berdintasuna



Nola bizi dute?



Gazteak eta berdintasuna

Nola bizi dute?

Naroa Argoitia Iñurrita

2008ko Gazteen Euskal Behatokiaren beka



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>>.

Argitaraldia: 1.a, 2011ko urtarrila

Ale-kopurua: 100 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz



Diseinua: EkipoPO

Inprimaketa: Eusko Printing Service, S.L.

ISBN: 978-84-457-3146-8


Lege-gordailua: VI 75/2011

Aurkibidea



Aurkezpena	9
Metodologia	13
Marko teorikoa	17
Diskurtso-analisia	21
Diskurtso dominatzaileak	24
Berdintasunaren inguruko bi diskurtso nagusiak	26
Gazteak eta berdintasuna egunerokoan	35
Lana	38
Aisialdia	39
Arlo emozionala	40
Ondorioak	43
Emakumeek eta gizonek gauza bera diote?	46
Azken gogoetak	47
Bibliografia	51
Liburuak	53
Artikuluak, ponentziak eta aldizkariak	55
Webguneak	57

Aurkezpena



IKERKETA hau Gazteen Euskal Behatokiak eskainitako beka baten ondorioz atera da aurrera. Beka 2008ko urtarilean esleitu zen, eta urte bereko abendura arte egindako azterketaren emaitza da esku artean duzun txostena. Beka honen tutorea Zesar Martinez Garcia izan da.



Ikerketa honek generoaren gaiari helduko dio: generoa eta gazteek nortasun konkretu hori nola bizi duten. Nerabe eta gazteen artean dauden jarrera sexistak ikusirik, eta errealtateari begiratuz gero, berdintasuna ez dagoela erdietsita ikusten dut nik, baina gazteen perzepzioak oso bestelakoak direla ere esango nuke. Diskurtso horiexek plazaratuko dira artikulu honetan: alde batetik, ikerturiko gazteek duten bizimodua eta horren gainean egiten duten interpretazioa landuta; eta, bestetik, berdintasunaren gainean, zentzu orokorrean, duten iritzia aztertuta.

Agerikoa izan arren, ezin esan gabe utzi genero perspektibaz eginiko lana dugula honakoa, hau da:

1. Generoen arteko botere-harremanak onartzen direla. Normalean, gizonen aldekoak dira —talde sozial bezala ulerturik—, eta diskriminaziozkoak emakumeentzat.
2. Harreman horiek historikoki eta sozialki eraikiak izan direla eta pertsonen nortasuna eraikitzen lagundu dutela.
3. Harreman horiek gizarteko egitura guztiak zeharkatzen dituztela: klasea, adina, erlijioa, etnia eta orientazio sexuala, besteak beste. Gainerako harreman sozialetan artikulatzen dira¹.

¹ Susana GAMBÁ: "¿Qué es la perspectiva de género y los estudios de género?" [on line]. In Susana GAMBÁ: *Diccionario de estudios de género y feminismos*, Buenos Aires: Biblos, 2007, <<http://www.iade.org.ar/modules/noticias/article.php?storyid=2517>>.

Metodologia



IKERKETAREN helburua hainbat harreman-sare edo gizarte-espaziotan eraikitzen diren irudikapenen, ideien, definizioen, pertzepzioen eta abarren inguruko azterketa egitea izan denez, metodologia kualitatiboa da erabili dudana. Izan ere, elkarrizketaren bidez, hizkuntza eta hitzak lagun, gizarte-errealitate konkretu horren berri ematen da, eta, erreferente sinbolikoak konpartitzean, gertaera sozialak ulertzen ditugu.

Irudikapen sinbolikoetara hurbiltzeko, diskurtso sozialak aztertu ditut, 22-27 urteko Arrasateko gazteen diskurtsoak; alegia, adoleszentzian estereotipoei eustetik urruntzen hasi eta norberaren izatea egonkor eta kontzienteago bihurtzen den adin horretan dauden pertsonen diskurtsoak.

Sakoneko elkarrizketena izan da erabilitako teknika. Zazpi elkarrizketa egin zaizkie gaian adituak diren pertsoneri —herriko feminista historikoei, hainbat teknikariri (Emakume Txokokoak, Sexologia Zerbitzukoak...), maskulinitate tailerren dinamizatzaileari eta abarri—, eta hamabi, praktika sozialen espazioetan mugitzen diren askotariko profiletako hainbat gazteri. Diskurtsoak, azken batean, egoera interaktiboen adierazgarri dira, eta diskurtso horiek indarrean dauden praktika sozialen espazioei egiten diete erreferentzia; ondorioz, espazio horietan ontzat jotzen diren kategorien berri emango digute. Izan ere, egiten duzunik haratago, emandako zentzuak du garrantzia askotan. Eta aldaketarako bidea ere hor aurkituko dugu.



ELK 1	Feminista militantea	Emakumezkoa	Euskara	Banakakoa
ELK2	Feminismoarekiko hurbiltasunean	Gizonezkoa	Euskara	Banakakoa
ELK3	Militanteak. Gazte Asanblada	Emakumezkoak	Euskara	Hirunakakoa
ELK4	Militanteak. Gazte Asanblada	Gizonezkoak	Euskara	Hirunakakoa
ELK5	Musikariak	Emakumezkoak	Euskara	Binakakoa
ELK6	Musikaria	Gizonezkoa	Euskara	Banakakoa
ELK7	Kirolariak	Emakumezkoak	Euskara	Hirunakakoa
ELK8	Kirolariak	Gizonezkoa	Euskara	Banakakoa
ELK9	Auzoetakoak	Emakumezkoak	Gaztelania	Binakakoa
ELK10	Auzoetakoak	Gizonezkoa	Gaztelania	Banakakoa
ELK11	Etorkina (Latinoamerika)	Emakumezkoa	Gaztelania	Banakakoa
ELK12	Hiriburuko bizitza	Gizonezkoa	Euskara	Banakakoa

Sakoneko elkarrizketak banakakoak, binakakoak edo hirunakakoak izan dira. Elkarrizketen bitartez, perspektiba ezberdinak elkarren osagarri izatea bilatu nahi izan da. Banakako elkarrizketen bidez zera lortu nahi izan da: norberaren ni pertsonalenetik abiatu eta hortik sortzen diren bizipenetan oinarritzea. Diskurtso sozialek maila pertsonalean nola eragiten duen azalarazten digu horrek, taldearen ideiak egunerokotasunean eta norberaren izatean nola uztartzen diren, alegia. Soziologikoki interesatzen zaiguna, aldiz, ez da pertsona horien bizipen partikularren sorta, elkarrizketatua bere praktiken testuinguruan kokatzea eta harreman- eta praktika-sare horren adierazpen pertsonala produzitzea baizik. Hau da, subjektuak gaiaren inguruan dituen ikuspuntu eta bizipen tipikoak bere kokapen sozialarekin lotzea; horrela, praktika sozialak produzitzen duen diskurtsoa eta diskurtsoak produzitzen duen praktika azaleratuko dira.

Hori dela eta, bizpahiru laguneko taldeei egin zaizkie elkarrizketak, batez ere. Diskurtso sozialen berri ematen digute elkarrizketa horiek, talde natural horren baitan politikoki zuzena denaren errepresentazio bat, eta, era berean, pertsonalki horrek suposa dezakeena ere mahairatzen da. Elkarrizketan bertan talde soziala birproduzitzen denez, esparru horretako diskurtso soziala ere erreproduzitu egiten da, baina, taldeak duen nolakotasunak lagunduta (soilik 2 edo 3 lagun izatea), nor bere bizitzarekin kontrastatu eta tentsioak agerian uzteko bidea zabaltzen da. Ni-gu arteko tentsioa dugu, beraz. Eguneroko bizipenak eta diskurtso soziala lotzen laguntzen du elkarrizketak, kontraesanak eta zalantzak azaleratuz.

Landa-lana Arrasateko herrian kokatu da, eta herri horrek gaiarekiko ezaugarri propioak dituela ez dezaket esan gabe utzi. Besteak beste, feminismoaren gorakadako urteetan mugimendu indartsua gauzatu zen, elkarrizketatu askoren gurasoen eta, batez ere, amen aldetik... Egindako borroka horien lorpen gisa, erakunde publikoetatik urte askotan egin den eta egiten ari den lan iraunkorra dugu: Emakumeen Txokoa, Sexologia Zerbitzua, hezkidetzaren lanketa eskoletan eta abar. Hala ere, berezitasunak berezitasun, Arrasateko gazteek ere gainerako euskaldunen iturri beretik edaten dute ura, eta, zorionez ala zoritxarrez, Arrasateko gazte hauen iritziak gainerako gazteen iritzien tankerakoak direla esango nuke nik.

Marko teorikoa



BERDINTASUNA, parekidetasuna, sexismoa, generoa eta generoen arteko hierarkia, hezkidetzak, emakumeen kontrako indarkeria, botere-harremanak... Oso luzea da egun gure hiztegiaren parekidetasunaren inguruan dauzkagun hitzen eta esamoldeen zerrenda. Hizkuntzak pentsamenduari bide ematen dio, baina pentsamendua bera sailkatu ere egiten du (askotan, kateatzeraino): esaten ez dena ez da existitzen. Eta esaten dena existitzen al da?

Berdintasuna. Pertsona guztiak berdinak gara. Baina benetan berdinak gara? Ala denak ezberdinak? Ala ezberdin egin gaituzte? Ala aske gara gu geu geure erara egiteko? ...Eta, ezberdinak bagara, posible al da berdintzea? Ezberdinak izaten jarraitu ahal izateko?

Emakumea. Emakumea zapalduta, emakumearen askapena. Eta emakume oro zapalduak? Kanpokoaren eraginez ala norberak eraginda? Biktimak? Den-denak zapalduak? Batzuek ezetz diote, eta bakoitzak errealtatea ikusten eta definitzen duen bezala bizi izaten du. Gu gara orduan, kolektiboa? Ala ni eta nien bilkura? Eta gizonak zapaltzaileak? Ala zapalduak, era berean?

2000. urteko maiatzean Instituto de la Mujer erakundeak antolatutako Las Mujeres en el Año 2000: Hechos y Aspiraciones mintegiko ondorioei jarraiki, hipotesi moduan markatzen ditudan galderari begirada bat botako diet. Mintegi horrek, nire iritziz, gazteen pentsaerak eta ikuspuntuak azaltzeko gakoak plazaratu ditu, hala nola feminismoan hain aipatua izan den "kristalezko sabaia" terminoan laburbiltzen direnak. Ondorio hauei jarraiki, gaur egungo emakume gazteak zein gizonak ez dira desoreken jabe izango, debeku adierazirik egon ezean, ez dutelako kristalezko sabai horren inguruan hausnartzen. Segerman-Peck 1991n hasi zen termino hori erabiltzen, eta emakumeek esparru askotan dituzten mugak edota zailtasunak —inplizituki eta ezkutuan agertzen direnak, baina diskriminaziorako mekanismo gisa funtzionatzen dutenak— bilduko lirateke bere baitan. Oztopoak agertzearen arrazoien artean, alde batetik, azalpen psikologiko klasikoak izango genituzke: emakumeek bizitzan zehar hezkuntzaren transmisio bidez bere egiten doazen sinesmen, arau eta balioen ondoriozkoak izango lirateke muga horiek. Hortaz, bizitzan zehar garatzen goazen gaitasunak izango lirateke. Gaitasun edo ezaugarri horiek motibazio ezberdinak eta izaera ezberdina izatera eramaten gaituzte, horrela sistema bera eta bakoitzari dagozkigun funtzio sozialak berproduzitzen.

Bestalde, azalpen psikosoziala dugu. Kasu honetan, oztopoak eta mugak ez lirateke potentzialitate pertsonaletatik etorriko, egitura hierarkikotik baino, genero aurreiritzi eta estereotipoetatik, zehazki. Esaterako, aurkezten zaizkigun ereduaren arabera jokatzeko dugu pertsonak. Jakintza errepresentatzeko errealtatea eskematizatzea beharrezkoa izan arren, askotan gehiegizko sinplifikazioak estereotipo itxiegiei heltzea eragiten du,

eta, are gehiago, heldu ezean, baztertua izateko aukerak handitzen dira. Hori dela eta, Maria Jose Díaz Aguadok berdintasuna honela definitzen du: «Berdintasunean aurrera egiteak bi espaziotan banatutako mundua gainditzea exijitzen du, nahi ditugun balioak aukeratzeko ahalmena izatea, eta, beraz, ez jasatea balio horietan ekiteak dituen ondorioak, hala nola indarkeria, enpatia-falta, dominaziorako eta besteak kontrolatzeko joera, ahultasuna, pasibitatea eta sumisioa»². Ildo beretik, barne mugak ere egongo lirateke, "profecía que se cumple por sí sola" (autobeteriko iragarpena)³ izenez ezagutzen dena. Sinesmen-sistemek pertsonen espektatibak, portaerak eta jarrerak aldatzeko ahalmena dute, sinesmen horietara hurbilaraziz.

Muga psikologiko eta sozial horiek ikusteko dugun gaitasun eza adieraziko dute autore askok; izan ere, eta bigarren hipotesiarekin lotuta, mugapen hauek ikustek ondorioztatzen du pertsonak ez garela guztiz askeak eta, beraz, norberaren bizitzarik pertsonalena ere sozialki bideratuta dagoela. «Aske garen sentrazioa behar dugu ezinbestean gizakiok, askatasuna baita pertsona bat eta beste pertsona bat ezberdindu egiten dituen. Hori dela eta, gure existentzia ulertzeko geure bizitza geuk bideratzen dugula pentsatu behar dugu»⁴. Beraz, ideia honi jarraiki, askotan bizitza maila pertsonalenean ulertzerantz jotzen dugu, muturreraino eramanda eta norabide kolektiboaren indar hau ez ikusita, edota, ikusten bada ere, arbuatuta. Areago, askatasunaren eta berdintasunaren ideietan hezi garen belaunaldietan, txikitatik askeak garela sinetsarazi digute, eta, beraz, norberaren izatea norberarena bakarrik den ustea konpartitzen dugu. Horrela, aukera oro guk geuk hartua izan dela uste izaten dugu, eta dagokigun hori egiten hasten ez garenean soilik ohartuko gara dauden muga guztiez eta bizitzak duen bideraketaz.



Kristalezko sabaiarekin jarraituz, azkenik, erantzukizunaren osagarritasun eza dugu, hau da, egin beharreko betebeharez gain beste ezer egiteko asti errealik ez izatea. Hau agerikoa izanik, antzemateko errazago bihurtzen da, besteak beste, horrek ez duelako norberaren izatea kolokan jartzen.

²MARIA JOSÉ DÍAZ AGUADO: "Avances y limitaciones en la construcción de la igualdad". In *Las mujeres en el año 2000: hechos y aspiraciones: ponencias y conclusiones. Seminario organizado por el Instituto de la Mujer, 11 y 12 de mayo de 2000*, Madrid: Instituto de la Mujer, 2000.

³J.J. MACIONIS ETA K. PLUMMER: *Sociología*, Madrid: Prentice Hall, 1999.

⁴Ibidem.

Diskurtso-analisia



ARESTIAN aipatu dugun bezala, diskurtsoen analisiaren bidez hurbilduko naiz azterketara. Thomas-en teoremari jarraiki, egoera bat erreal gisa definitzen denean, bere ondorioen bidez, azkenean, erreal bilakatzen da⁵. Horrela, gizakion pentsamenduak errealitate sozialean zuzenki eragiten duela kontuan izanik, errealitate sozial hori nola bizi den jaso nahi izan dut. Horretarako, diskurtso bidez adierazten diren hitz-multzoak aztertu ditut, Laclau eta Moufferen hitzak gogoratuz, diskurtsoa praktika adierazle multzo artikulatua baita⁶. Diskurtsoa, beraz, errealitatea ikusi eta bizitzeko moduen egituratzailea izango da, kodifikatzaile kulturala, eta, hortik abiatuz, diskurtso ezberdinak harreman-sare ezberdinen lekuko izango dira. Pertsona indibidualen iritzietatik haratago, multzo sozialen adierazle dira diskurtsoak, eta horixe jasotzea izan da nire helburua: soslaian bidez, estruktura edota harreman-sareak azaleratzea. Ez du hainbesteko garrantzirik hartuko, beraz, nori aipatzen dituen diskurtsook —esaten dituzten subjektuak zeintzuk diren—, aipatuak izan direla baizik, eta, beraz, kalean daudela, zirkulazioan eta besteei eragiten.

Harreman-sare zabalak kontuan hartuz gero, diskurtso batzuk gailenduko dira, dominatzaileak deritzegunak. Horietatik abiatuko gara analisi honetan, betiere kontuan izanik diskurtso guztiak etengabe ari direla elkarri eragiten. Bourdieuk dioen bezala, erreferentziazko espazio sozialetan kokaturiko posizio sozialek indar sinbolikoa mantentzen dute euren artean⁷, eta, era lausoagoan, baita ingurukoekin ere. Besterik gabe, honako hauek izan dira antzemandako diskurtsoak.

⁵Idem, 162. or.

⁶Zesar Martinez: *Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritzza: globalizazio neoliberalari buruzko diskurtso sozioideologikoak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003. 263. or.

⁷Ibidem.

Diskurtso dominatzaileak

Gaian murgildu nahirik, ondorengo orrietan, berdintasuna printzipio teoriko gisa hartuta, elkarrizketaturiko gazteek dituzten iritziak jaso eta sistematizatu ditut.

Diskurtsoak diskurtso, badira puntu komun batzuk, edozein hausnarketatan errepikatzen direnak eta pentsamendu orokorraren oinarritzat identifikatu ditudanak.

• Ezberdinak gara

Emakumeak eta gizonak ezberdinak garen sentazioa orokorturik dago, eta berdintasuna lantzeko oinarri bezala, desberdintasunetik abiatzearen ideia da nagusi. «Eskubide berdintasun bat bermatu bir da, baina berdinak be ez gare, ez gare ez neskak ez mutilak berdinak, ez neska aberats bat eta neska pobre bat, ez neska beltz bat ezta neska latinoamerikana bat, bakoitzan situaziñoak asko aldatzen dau. Nik eztoz nahi berdinak ixatia, iruditzen jat guk daukogun balore pila bat mutilek eztaukela eta mutilek ikasi biko benela hemendik, ez?» (ELK1). Desberdintasun honen jatorriaren inguruko kezka gutxiengoak soilik adieraziko du.

Harrizkoa da normalean tendentzia globalak pertsonengan oso baldintzagarriak direla adierazten duten elkarrizketatu horiek —eta, beraz, sexismoak eta estereotipoek gu guztiongan eta egunerokotasunean eragin zuzena dutela defendatzen dutenak— direla erlatibizatzeke joera handiagoa dutenak. Hots, emakumeak eta gizonak kolektibo sortu gisa hitz egiten duten bitartean, etengabe erlatibizatuko dute ideia hori⁸.

Esan beharra dago, gainera, desberdintasun horiek direla medio, desoreka batzuk justifikatu egiten dituztela, eta, kasu horietan, ez dituztela diskriminaziotzat joko, horrek dakarren arriskuarekin. «Beittu, niri pasau jaten aurreko urtien: apuntau nintzen ETT batian eta ezustien deitxu. Eta nire mutila bebai apuntau zan eta nire mutila egon zan uztaila dana lanien. Hombre, azkenian fabriketan eta holan eskatzen dotzuena da indarra eta azkenien eitteko astebete lan... Baina bez eztaukiela hor... Eztotzuela bez deitzen, "Bueno eingot pare bat entrebista" eta igual neska bat da ta "Ikusi ea ahal dozun..."» (ELK3).

• Feminismoarekiko jarrera

Diskurtso ia orotan errepikatzen den beste kontu bat feminismoa matxismoarekin parekatzearena da. «¿Feminismo? Procuero no hablar de... o sea, hacerme la sueca. Es que no aguanto eso. Hay mucha mujer feminista, ¿no? Y mucha mujer machista. Yo conozco a mujeres machistas, ¿eh?» (ELK9). «Dabiz eitten mutilen iguala, baina kontrakua. O sea, dabilitze komo indarkerixa apur bat erabiltxen. Da como...

⁸Beherago, berriro eutsiko zaio puntu honi sakonkiago.

emakumiak nahi dabe apur bat gainera jartzia eta hori ez da bardintzasuna» (ELK12). Oraindik orain, matxismoaren oposiziozko gisa ulertzen da, eta horrek jarrera negatiboak sortzen ditu. Eta, hori gutxi balitz moduan, desberdintasuna aferra estrukturala dela dioten horiengan ere, hots, sexismoa identifikatu eta generoaz aise mintzo direnen artean ere, ez dago feminismoarekiko identifikazio handirik.

Hala ere, feminismoaren gainean dagoen irudi txarraren atzetik, gehienek ezjakintasuna edo gaiarekiko hurbilpen gutxi izatea aitortzen dute: «De ese tema, pues no entiendo mucho, la verdad» (ELK12).

Edonola ere, gai hauek ez dira egunerokoak gazteen solasaldietan, elkarrizketatu batzuek adierazten duten legez: «Zelako zaile dan gaur eduki dogun konbertsaziñua egun normal batean eukitzia» (ELK4) edota «Hori beti eukiot hor, eta sekula eztoz esan» (ELK8). Oso giro konkretu eta minoritarioetan azaleratzen den errealitatea besterik ez da, eta hausnartu eta eztabaidatu ezean, gaiekiko ikuspegi sakonagoa garatzea ere baldintzatuta geratzen da.

• Zapaldu kontzeptuari buruzko ezadostasuna

Zapaldu eta zapaltzaileen arteko banaketa horren logikatik aldendurik agertzen dira. Gazteak ez dira ez diskriminatuak, ez jendarteko exijentzien mendean dauden sentazioarekin biziko. Horrela, bada, berdintasunean ez garela bizi eta emakumeek bigarren maila hori betetzen dugula diotenen artean ere ez da zapaldu-zapaltzaile diskurtso hori erabiliko, eta, erabiltzen denean ere, kontu handiz esango da. «Ez dot esango zapalkuntza, ze ez jat gustaten hori berbia erabiltzia, pertsona, pertsonaka eta gutxiago nire kasuen, ez? Baina... Baina bai, inferioridade kasu batzuk» (ELK1).

Autore askok zapalkuntzaren izate sotilari erreparatuko diote hau azaltzerakoan. Hau da, aurreko hamarkadetako kontestu soziopolitikoak kolektiboak eraiki eta etsaitasunean jokatzea eragin bazuen ere, egungo garaian, difuminatu egin dira blokeak eta errealitatearen azalpen sinplistik, estrokturek eragindako zapalkuntzen izaera anitza ikusteagatik, zein errealitateak erlatibizatzeke joeragatik. Horrela, elkarrizketaturiko gazteen artean erlatibizatzeke joera hori behin eta berriz agertzen da, eta, ustezko berdintasun eta askatasun horren barruan, emakumeak eta gizonak kolektibo ezberdin eta kontrario gisa markatzeak ezegonkortasuna sortzen du. Egunerokoan, gizonak zein emakumeak jasaten dituzten injustizietan gehiago paratuko dira, atzean dauden botere-harremanei zein jendarte-estrokturari begiratu gabe. Eta mikroprisma horretatik begiratu, injustiziak eta abantailak guztiok jasaten ditugunez, generoak eduki dezakeen indarra erlatibizatzen da.

Horrez gain, justifikaziorako bitarteko nagusia meritokrazia izanik, bizitzan bakoitzak eginiko bideak, lanak eta duen nortasunak azalduko ditu desorekak, baldintza estrokturalek baino gehiago. Gero, egunerokoan, diskriminazio eta desoreka batzuen jakitun egon arren, definizio hertsiei ihes egingo zaie. «La mujer siempre está más...

no discriminada, pero la que te puedes quedar embarazada eres tú, la que se pueden burlar... ¿sabes? Todo eso» (ELK9).

- **Berdintasunaren aldeko diskurtsoak**

Esan beharra dago guztiek jarrera positiboa azaldu dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko, diskurtso dominante eta politikoki zuzena den erakusle. «A mí, igualdad a todo, a todo» (ELK9). «Eskubide berdintasun bat bermatu bida, eta hori da helburue» (ELK1). «Bardintasuna? Lortzeko dauena eta ideala» (ELK5). «Eskubide berdinak eduki biher dogula» (ELK10). Horrela, badirudi berdintasuna jendartearen printzipio erregulatzailerik garrantzitsua izan behar dela uste dela, gaur egungo antolamenduaren ikur bihurtuz.

Berdintasunaren inguruko bi diskurtso nagusiak

- **Berdintasuna sistema oso gisa**

Diskurtso honen baitan, berdintasuna ulertzeko era sakondu eta zehaztu egin da, adibidez, berdintasuna uniformitatetik bereiziz. «Eskubide berdinak eduki biher dogula... Oin berdinak gare baina desberdinak gare. Azkenian nik uste dot berdinak izateko desberdinu behar gaituztela» (ELK10). «Parekidetasunak eztauela esan nahi homogeneitate bat. Aniztasun bat egon biadala neska eta mutilen artien ze azkenien desberdinak gare, ez gare igualak, errespetu batekin» (ELK4.a).

Diskurtso honek harreman zuzena izango du homosexualitatearekin eta indarkeriaren inguruko pentsamenduekin. Feminismoaren ideiei jarraiki, homofobia zein indarkeria berdintasunik ez egotearen adierazlerik agerikoenak dira, askotan "iceberg" deitura hartu dutenak. Banaka aztertuta, homosexualitateari dagokionean, patriarkatua heteropatriarkatu definituko dute askok: heterosexualitatea emakume eta gizon izateek zentzua hartzen duten lekua da, erreproduzio sozialerako zati osagarri bailiran ageri dira. Bide beretik, homofobia, rol eta eredu patriarkalen haustura gerta ez dadin sorturiko ideologia da. Azken batean, harreman-eredu desorekatu honen baitan, gizonak eta emakumeak osaturiko bikote-harremanak jendarte mantentzeko beharrezkoak direla argudiatzen dute⁹, non bakoitzak bere rola betetzen duen. Horrela, bada, homosexualitatearen aurreko jarrerak lotura zuzena izango lukete berdintasunarekin eta sexismoarekin.

Lehen diskurtso honen baitakoek sexismoa eta pertsonen jokamoldeak sistemarekin lotzen dituzte, eta, bide beretik, homosexualitatea beste eredu baten moduan

⁹MEDEAK: "Aullidos de cuerpos insumisos". In *Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak. IV Jornadas Feministas de Euskal Herria*, Portugalete, 2008ko apirilaren 12a eta 13a [on line], <http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/16773/original/Euskal_Herriko_IV_Jardunaldi_Feministak.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

planteatzen dute eta ez normalitatek at dagoen harreman gisa. Azken batean, generoarekin eta sexismoarekin lotzen dituzte harremanak. «...Onartzen da onartu bir dalako, baina ez dauela ulertu bestelan ze izen bikoizan... pertsona hori hasi dala bere sexualitateaz disfrutatzen eta gentiak ba eztaikitx... herri txiki batekuak izatien... kalien kontrol oso handixe dau, nire ustez. (...) Eztabe sexualitatia ikusten askatasun bezala. Sexualitatia ikusten dabe lotute beti rol batzuri...» (ELK4.a). «Neuk neure burue ezteko matxito moduen baina aztertuz gero neure harremanak neskekin eta mutilekin batez be zelakuak dien, ba neuk be eztoz gure holakuek izatie baina...» (ELK4.a). Heterosexualitatea ez da berezkozat joko, sistemaren arau normatibo bat legez ikusiko baita, eta, beraz, homosexualitatea, beste eredu baten moduan, eta ez berezko normalitatek ateratzen den orientazioa.

Berdintasunaren inguruko diskurtso honek gizarte-egitura eta ideologia azpimarratuko ditu, baita emakumeen kontrako indarkeriaz hitz egitean ere, jendarteko balio-sistema oso bati erreferentzia eginez. «Argi dau, ondorioa da» (ELK2). «Egunero-egunero telebistan ikusten dogu eta emoten dau dala... eztaiz, danok super kontzientziauta garela eta, o sea, asuntue da super barrukue, oso-oso barneratuta dauzen rolak eta istoriak die» (ELK1). Eredu soziokulturalean bilatuko dituzte arazoak, beraz.

Pertsonok osatzen dugun sistema horren ezaugarria lorturiko berdintasuna izanik —edota lortzeke dagoena—, jendarte horretako pertsonok era berean islatzen duguna izango litzateke. Ondorioz, diskurtso hauetan berdintasuna zuzenean sexismoarekin loturik agertuko da, eta sexismoa euren bizitzekin. «Mutilek... nik uste dot ya dazela nahiko markauta, bizi garen gizartian. Bizi garen European, kapitalismoan... (...) hemen premiatzen dan baloria, futbolien ondo jolastia, konpetitibua, indarra...» (ELK2). «Ez dozta inobezek ezebez esan baina bai daukotsu beti presiño hori (...) Nik uste dot direla prejuizioak, ba gizarteak sartu dozkunak» (ELK5).

Eta honekin oso loturik agertuko zaigu euren bizitzetan sistema honek zenbaterainoko eragina duen inguruko kezkek. Gehienek, alabaina, gizakia baldintzatua dela eta egitura sozial desorekatu hau gure baitan errotuta dagoela dioten arren —«Baine ezta erabakitzen bakoitzak, bere inguruek erabakitzen dau. (...) Zu askotan zarena zare ez bakarrik zuregatxik, ingurukuegatxik bebai, erreferentziak ez dozuz zuk sortu, hartu ein dozuz. Kanpoko zeoze da. Zu zare dependentie gizartiana» (ELK4.a)—, badira kontrakoa defenditzen duten gutxi batzuk ere —kontrakoa baino gehiago, baldintzapen horietatik aska gaitzkeela diotenak: «Jo, ni ez nau reprimiduta bez. Ni, eh? Ni pertsona bezala. Eztaikit emakume batzuk egongo dien edo, nik pentsaten dot seguramente baietz, jendia egongo dala reprimiduta baina ni ez nau...» (ELK7)—.

Sexismoarekin jarraituta, horrek markaturiko estereotipoak eredu gisa ageri diren moldeak dira, azken batean, eta inork ez ditu osoki betetzen. Ez dira eredu uniformeak, ezta pertsona beraren baitan ere, unean uneko modelo ezberdinei eutsi baitiezaiekegu. Horrela, feminismo tradizionalak markaturiko emakume-ereduari ere kritika asko

egin zaizkio feminismoaren beste korronteen baitan, eta homogeneizatzaille, global eta baztertzailetzat jo da. «Ez dago emakume izateko era bakar bat»¹⁰. Gazteen artean ere, erlatibizatze joera hori asko agertzen da; batez ere, gizakiak pertsona sozialak garela eta estruktura sozial horiek ia guztiz edo, behintzat, oso baldintzatzen gaituztela defenditzen duten jarreretan. «Nesken kasuan kontrakua dana, neska batek asko bilatzen daben bezala perfil hori askotan, mutiletan (...) beno, azkenian ez dot ikusten holako garbi, ez dakit, igual azkenien aurreiritzixekatxik nabil berba eitten, ze klaro, danetakuak dauz» (ELK1). «Ni orokortasunen kontra nau, personak gare eta danok guzti, ezberdinak gare eta ezin da orokortu (...) Baina zu neska izateaitxik kualidade batzuk hartzen dozuz edo kolektiibo baten moduan hartzen dozuz. Zuk ezberdintzen dozuz kualidade batzuk edo kapazitate batzuk pertsonak rubiak izateaitxik, morenak izateagaitxik edo pelirrojuak izateagaitxik?» (ELK10).

Diskurtsoak sexuka segregatuz gero, ohartuko gara elkarrizketaturiko emakumeak batez ere jarrera honen baitan kokatuko direla. Izandako bizipenak direla medio, sexismoa identifikatu eta adierazteko gaitasuna izango dute. Emakume rolek eta jendarte mailako gutxiespenak euren bizipenekin lotzen dituzte askok. «Ixil-ixilik, ze sentitzen zara ridikula, eta pentsateozu "tontia naz", pentsatzen dozu zala... ez dakit, zure iritzixak ez dau balio, edo ez dau hainbeste balio edo holako zerbait, zu sentitzen zara kulpable, ez? Eta gero ikasten dozunian ezetz, eztala mobida zure baitakua, ezetz, azkenien herra mintak lortzen dozuz beste modu baten ulertzeko hori» (ELK1).

Genero kontzeptuaren despolitizazioaren eraginez, apika, borondate edo izaera politikoa galdu egin da, horrela bere osagarri transgresorea desagerrararaziz. Diskurtso batzuetan honako hau antzeman daiteke: sexismoarekin eta genero ezberdintasunekin ohartu arren, eta, gutxi balitz moduan, horiek aldatzeko ahalegina egin arren, ez da diskriminazioarekin lotura zuzenik egiten, eta, beraz, arazoa ez da kolektiibo baten zapalkuntza moduan ikusten. «Azkenian hazten dotzue mutil bat bezala mutila bazare eta neska baldin bazara bideratzen dotzue nesken gauzetara. Eta hori ondio badau. Eta jarraituko dau. (...) Baina nik uste dot neska eta mutilen arteko desberdintasuna baino gehixau: nik uste dot hor dala errespetua (...) Hori aldatu einbida. Baina ez igual mutilak eta neskek diezalako, paper hori bikotearen alde baten davelako eta hori beste bikotekidearen partetik aldatu einbida. O sea, bixan aldetik gehixen bat» (ELK10). Horrela, bada, desberdintasunen atzean ideologia oso bat dagoela konturatu arren, eta, beraz, sexismoak esparru guztiak ukitzen dituela, kasu zehatz batzuetan soilik antzemango dira desoreka eta botere-harreman hierarkiko bezala. Gizonek botere-harremanetan eduki ditzaketan pribilegioak eta egiteko zein erantzunkizunak lausotzea eragiten du horrek.

¹⁰ EMAKUME INTERNAZIONALISTAK: "¿Por qué es necesario seguir siendo feminista? Que no cuenten más historias". In *Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak. IV Jornadas Feministas de Euskal Herria*, Portugalete, 2008ko apirilaren 12a eta 13a [on line], <http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/16773/original/Euskal_Herriko_IV_Jardunaldi_Feministak.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Beraz, sexismoa identifikatu arren, mutilen eta nesken artean eragin ditzaketen desorekez hautemateari buruz, ikuspuntu ezberdinak agertzen dira. Hots, desberdintasun horiek botere-desoreka gisa ulertuko dituztenak daude eta, besterik gabe, desberdintasun moduan ulertuko dituztenak. «Ixten bostazu pasaten itxi biostazulako, itxi pasetan... baina ni neska nazelako edo mutila nazelako, ez!» (ELK7). Era anekdotikoan ulertuko dira.

Gizonen diskurtsoei arreta jarriz gero, autore batzuek diotena kontuan hartu eta hortik hasiko naiz aztertzen. «Gizonen belaunaldi berri bat sortzen ari da, sentsibilizaziotik eta elkartasunetik haratago joan, eta ekiten hasi dena»¹¹. Elkarrizketatuen artean eta diskurtso honen baitan mugitzen direnen artean, berdintasunarekiko konpromisoa ikus daiteke, eta maskulinitate-ereduaren gaineko hausnarketak «Ni ez naz ez maskulinoagoa ez femeninoagoa ehizatzegatik ala ez ehizatzeagatik» (ELK2) gisakoak dira, berdintasunarena norberaren borroka gisa ulertuz, patriarkatua norberarengan ere erroturik dagoela uste dutelako, eta, beraz, hortik aldatzen hasten dira. Horrela, bada, mutilen jarrera aldatzen ari dela ikus daiteke, bai emakumearekiko eta baita beste rol batzuk ez birproduzitzeari begira ere.

Hala ere, ideia-multzotik honetan kokatzen diren gizonak emakumeak baino eszeptikoago agertzen dira berdintasunaren defentsan egiten ari den bidearekiko. «A ver, diskriminazio positiborik ez dau. Ez da positibo hitza aditzondo moduen ipini, diskriminazio hitza... Adibidez: lanpostu bat eztauke zetan izen emakume batek emakumie izateaitxik edo gizon batek gixona izateaitxik. Balorau biozu pertsonie. Zer dau oin derrepente gobernuen ministroen erdixek izan bir dile gixonak eta beste erdixak emakumiek. Hori ez da parekidetasuna, hori da zaborra» (ELK4.a). Ez da planteatzen askotan aipatzen den kristalezko sabai hori ekiditeko biderik, eta bi arazoirengatik izan daiteke hori: kristalezko sabai hori ikusten ez delako, edota, ikusi arren, beste planteamentu batzuk egokiagozat jotzen direlako. Miguel Moyak, esaterako, ekintza positiboaren aurreko eszeptizismoa neosexismoaren kategorian kokatzen du, balio tradizioaletan — esaterako, meritokrazian — oinarrituriko aukera-askatasuna edota aukera berdintasuna hartzen duelako oinarri¹². Meritu horiek neurtzeko erabiltzen den balio-sistema onartzera eramaten du, estruktura sozialetan desorekak sortzen dituen balio-sistema berbera erabilia, eta, bueltan-bueltan, sistema birproduzitzea eragiten duena.

- **Berdintasun eza: batez ere kasu zehatzetan gertatzen den arazoa**

Berdintasuna aipatzean, zeri egiten diote erreferentzia Arrasateko elkarrizketaturiko gazte hauek? Zer ulertzen dute berdintasuna terminoarekin?

¹¹ Inés ALBERDI; Pilar ESCARIO, eta Natalia MATAS: *Las mujeres jóvenes en España*, Bartzelona: Fundación "la Caixa", 2000, 285.or.

¹² Miguel MOYA MORALES: "Actitudes sexistas y nuevas formas de sexismo". In Ester BARBERÁ eta Isabel MARTÍNEZ: *Psicología y género*, Madril: Pearson, 2004.

Ondorengo zitetan ikus dezakegun bezala, berdintasunean bizi garen sentsazioa izango da adierazgarri. «Gauz nahiko antzerako, neskak bai mutilak igual kobretan daue, ordu igualak sartzen dabe, iguala exijiduten jakie...» (ELK12). «¿La igualdad? Un poco de todo, tanto para los hombres como para las mujeres... Me parece muy bien la idea, ¿eh? De mostrar, o sea, de plantear y de... todos los derechos igual» (ELK11). Berdintasun-eza etxearekin eta lanarekin lotuko da soilik, horiek direlako guztiz berdintzeko falta zaizkigun esparru bakarrak. «Bai lanian, bai etxeko gauzetan, bai errespetu aldetik eta holan, bardinak» (ELK6).

Diskurtso honen baitan, talde batek emakumeak eta gizonak berdinak garen arrazoiketan jarriko dute pisua: «Berdinak gare, berdinak gare, hori argi daukot (...) Ikustia apur bat emakumiak be indarra daukola eta eztaukola zetan emakumia zapaldua izan bihar edo maltratatua izan behar edo... mutilen berdina ein laike» (ELK6). «Diferentiak eta berdinak gara gauza askotan. Kontua da gero eta establiuak zariela eta gero eta fuertiauak, ta geroz eta karakter gehixauakin. Autoridad, hau gura dot eta hau einbiot» (ELK8). Hots, emakumeen berdintasuna maskulinizatzearekin loturik agertzen da, gizona zentroan jarri eta gizon izatearen araberrako unibertsaltasuna bilatuz.

Beste gehienek, ostera, desberdintasun biologikoak markatuko dituzte: «Ez gare igualak. Baina eske ez dekogu zertan izan behar bezta! Zuek umiek zeikie, guk ez» (ELK12). Jendartea analizatzeko, nesken eta mutilen arteko banaketatik eta horien arteko ezberdintasunetatik abiatuko dira, betiere horien naturaltasuna kuestionatu gabe. *Las Mujeres en el Año 2000: Hechos y Aspiraciones* biltzarrean komentatzen zuten legez, zailtasun handiak daude oraindik ere sinesmen sexista asko gainditzeko; izan ere, biologiaren influentzia handiesteko joera agertzen da egungo arazoak azaltzeko orduan¹³. «Yo he oído lo de los puestos, por ejemplo. Aquí buscan hombres o mujeres. Hombre, también ahí yo les doy parte de razón, porque igual mucho peso una mujer no puede con tanto, pero... o lo que sea, pero del salario me parece una tontería. Una chorrada» (ELK9). Naturalismo horrek justifikaziorako argumentu gogorra izaten jarraitzen du. Horrela, bada, biologikoki izan genitzakeen ezberdintasunak azpimarratuz, egoera sozialak azaltzen dituztenen joerak (ideologiaren araberrako jokatzeko moduak, antolaketa sozialaren araberrako estereotipoa eta joera soziala; azken batean, esturturen araberrako pertsonak) gutxiestera joko dute.

Kasu gutxi batzuetan, estereotipoak eta sexismoa kanpotiko joera eta exigentzia bezala ere identifikatu izan dira, eta baita norberaren baitan ikusi ere. Esaterako: «Mutila izan bida juergista, futbola gustau bijako, kotxiak eta neskak...(...) Hombre, holako gauzak bai eukiot bizitzan. Adibidez, nik nahi neban ikastia karrera bat eta

¹³ *Mujeres jóvenes: el avance hacia la igualdad: seminario realizado en la Universidad Internacional Menéndez Pelayo (UIMP) del 17 al 21 de septiembre de 2001*, Madrid: Instituto de la Mujer, 2002.

ezeustien itxi porke nesken gauza zan! Edo nahi neban kotxe mota bat eta ezeustien itxi. (...) Beti galdetzen noiz erungoten neskia etxera...» (ELK12). «Askotan tokau jat izatia “el duro de la película”. Sí, he tenido que sacar un poco de... “yo aquí soy el macho” ta harrotu eitten zara eta bihurtzen zara un puto asqueroso. Kanpotik ikusita, ikustozu hori eta esateozu ba ni holan ipintxen naizenian seguramente izango naiz así que... ez nau komodo holako paperian» (ELK8). «Eso, en Brasil, mucho. Tú tienes que ser, vamos... tienes que ser una persona formal en ese sentido, ¿no? Tienes que ser cuidadora, protectora, yo que sé... un poco de todo. Es distinto de aquí» (ELK11). Baina, orokorrean, sexismo hau naturalizat jo da, berezko izateen ondorio natural gisa, eta, beraz, horrek jarrera desorekatu asko justifikatzea eragin du.

Logika horri jarraituz, ezaugarrien naturalizazioa, biologizazioa dela medio, ezberdintasunak zein kasuan kasuko desorekak ulertu eta, kasu askotan, baita babestu ere egingo dira. «Bueno, yo creo que todo el mundo tiene sus complejillos, ¿no? Y más las mujeres. —¿Y por qué creéis que tenemos más complejos?— ¿Las mujeres? ¡Porque somos más inseguras!... Y nos miramos más y sí... más coquetas. Somos más... entre mujeres nos miramos, ¿no? Y los hombres no suelen mirar. Bueno, se miran, pero distinto. Las mujeres somos las mironas» (ELK9).

Horrela, askatasun horretatik abiatuz, gizakion izaerari dagokionean ere, edota eduki ditzakegun arazoei begira, ez da loturarik ikusiko jendarteak markatzen dituen jarraibideekin. «Exijentziak, mugak? Nik ez dot sentidu hori, bai dau el típico comentario de neska-Magisteritza. Eta, en plan, Ingerieritza-danak mutilak. Azkenian gehixena da holan. Baina nik uste dot ez dauela zegaitxik. Nik ez dot sentidu be ezta...» (ELK3). Eta exijentzia batzuk ikusi arren, ez dira, baina, baldintzatzaile legez ulertuko, ez dira norberaren izatearen sorreran eragina izan dezaketen faktore bezala interpretatuko. «Neuk erabakitzen dot neuatxik eta inguruek esaten doztiena pasaten gazta hamendik» (ELK4.b). «Eztaukot holan presiñorik, hau enbiot edo... Uste dot ez daukogula ezebez prediseñauta» (ELK6). Macionisek aipatuko digun bezala, «Gure indibidualitatearenganako harrotasunak, maila handi batean, gure ekintzak sozialki baldintzatuta edo determinatuta daudela onartzea zailtzen du»¹⁴.

Diskurtso honen baitan, sexuen arteko oposiziora behin eta berriz joko da edozer azaltzeko orduan: “guerra de sexos” izenekora. Erlatibizatzeke joera, postmodernismoaren eragin hori, beraz, agertu arren —«Porque hay mujeres y mujeres» (ELK9)—, asko gutxituko da, eta etengabeen errealitatea hauteman eta azaltzeko modua ezberdintzetik eta kontraktotasunetik izango da. «Zuek zarie konplejiuak, bai buruan eitten dozuen pelikula danagatik, bai inbidixagatik, bai askotan pentsaten dozuelako ez zugaran bakarrik, baizik eta ingurukoek zer pentsaten dabe nigan, ze pentsauko dau horrek... Hori da, neskek die super konplikatuak. Egotia estable neska bat da askoz zailagua egotia mutil bat baino» (ELK8). Autore batzuek adierazten duten moduan, estereotipo eta aurreiritzi horiek emakume eta gizonen kolektiboan gainean

¹⁴J.J. MACIONIS ETA K. PLUMMER: *Sociología*, Madril: Prentice Hall, 1999, 6. or.

era hertsu batean egiten dira. Emakume-gizon eta maskulinitate-feminitate binomioen ekiparaziotik abiatzen dira, eta horrek generalizazio orokorra suposatzen du. Ezinbestekoa suertatzen da ñabardurak egitea¹⁵. Eta, beraz, emakumei atxikitako ezaugarri femeninoen eta gizonei atxikiriko ezaugarri maskulinoen sinplifikazio polarizatua izugarri gaintitzen du pertsonen arteko aniztasunak¹⁶.

Sistema-eredu honen baitan, berdintzen joatea, eskubide formal berak edukitzea defendatzen dute, batez ere, sistema bera kolokan jarri gabe. Eta, batez ere, pentsamendu hau konpartitzen dutenengan bereizgarriena da matxismoa eta desorekak urruntasunean edo kasu isolatu gisa kokatzea: «[non ikustezu ondio desoreki edo diskriminazio dala?] etxeko kontutan. Ondio daz betiko asko, ideologia hori daukienak, eta ikusten da, telebistan bertan ikusten da, leku danetan. Eta nik uste dot enpresen anbituan eta lanian» (ELK6).

Ezberdintasunak ikusten dituzte eta horiek aipatu egiten dituzte, askotan baita desorekak, injustiziak edota emakumeenganako presioak ere. Baina hauek gai zehaztzat hartuko dituzte eta, arrazoitzaerakoan, emakumeengan jarriko dute pisua, errua euren izateari edota emakumeen artean egiten den presioari egotzita. «Neskan artian inbidia asko dau eta horrek afektatzen dau danerako (...) Nire ustez da zuek zeuen burua...» (ELK8).

Diskurtso honen baitan, elkarrizketatuen artean batzuek berdintasuna erdietsita dagoela azaleratu dute: «Ahora ha cambiado mucho la cosa. Las mujeres... es que al final las mujeres hemos cambiado. Las mujeres ahora somos independientes. Hacemos lo que queremos y es como tiene que ser. Tanto los hombres como las mujeres. Parte de unos y de otros. Y es así» (ELK9). Hala ere, gehienek oraindik bidea egiteko dagoela diote: «On dala askotik datorren gauza bat —eztaikit aldatuko dan, nik usteot baietz—, gauzak aldatzen doiazela» (ELK8).

Indarkeriaren zein homosexualitatearen gaineko iritziak mahai gainean jarriz, lehen adierazi bezala, esaterako, homosexualitateari dagokionez, diskurtso honen baitakoek, onarpenetik abiatu arren, "bestea" ("el otro") bezala identifikatuko dute. Hau da, eskubide guztiak onartu behar zaizkiela aldarrikatu arren, ereditik ateratzen diren pertsona kontsideratuko dituzte: «Joe, zelako gauzak dauz hemen! Ero zelako mutilak dazen hemen! Ez? Nik esangot zelako neska dauzen eta neska batek esango dau zelako mutilak dauzen» (ELK8). Eta, beraz, ez da lotuko berdintasun-eza mantentzeko gako gisa edota sistemaren beraren izatea logiko eta naturalizatu bihurtzen duen arlo baten moduan. Ildo beretik, ez da planteatuko heterosexualitatea berezkoa den edota estruktura sozial batzuk mantentzeko ikasitako harremanetan jartzeko forma bat den,

¹⁵ *Mujeres jóvenes: el avance hacia la igualdad: seminario realizado en la Universidad Internacional Menéndez Pelayo (UIMP) del 17 al 21 de septiembre de 2001*, Madril: Instituto de la Mujer, 2002.

¹⁶ Ester BARBERÁ eta Isabel MARTÍNEZ: *Psicología y género*, Madril: Pearson, 2004.

eta homofobiak daukan papera ere ez da ikusiko. «Me encanta, a mí me encanta. Se vive libremente. Son como chicas, pero en chicos» (ELK9).

Horrela, erresistentzia gehiago jarriko da feminitate- zein maskulinitate-ereduak hausten dituzten homosexualentzat, eta jarrera hau mutilengan agertuko da, batez ere. «Hori hemen dau oso zabaldua, eh? Hemen dienak homosexual no van de ello, eztakitzu? Badauz beste leku batzuetan que van de ello eta un poco... hamen jentia super normala eta super corriente» (ELK8). «Jendiak flipatu eitten dau esaten dotzazunian ba tipo hau homosexuala da, ze oso jende normala da. O sea, ez da Bilbon egon laiken tipo batzuk, ez? Daukiela una pluma que se ve a dos kilómetros. Ba hori, da herriko jendia be eta jakin enbiozu, bestela jentiak ez daki» (ELK6).

Autore batzuk heterosexismoaz hitzegiten hasi dira, hots, pertsona heterosexualen aldeko aurreiritzia izango litzatekeena¹⁷. Eta, beraz, homosexualak heterosexualen eruedetara hurbiltzeko beharra planteatuko luke ideologia honek. Searnsek eta Williamsek gaineratzen duten bezala, heterosexuala edo heterosexualitatearen gailentasuna izango litzateke, horrela, nahita edo nahi barik, politiketan, prozeduretan, gertakari edota jardueretan pertsona ez heterosexualak baztertzea eragiten duena¹⁸.

Indarkeriara salto eginez, enfokea bera izango da, hots, sinesmen-sistema guztiatik aldentzea. Diskurtso honen baitan, indarkeria-kasuak alde psikosozial edota psikikoan¹⁹ paratuko dira, batez ere. Lehenak tratu txarraren emailearen ezaugarriei begiratuko die gehienbat: nortasuna, gaixotasun psikikoa, alkoholismoa eta drogen erabilera. «Mutil horiek ez dire normalak... Edarixa ta drogak be askotan tartien egoten dire, baina ez da aitzakixa. Eztakitx, burua galduta edo...» (ELK12). Alderdi psikosozialari dagokionean, bikote-harremanetan izan ohi diren zailtasunak azpimarratuko dira eta eraso bikote-harremanetako elkarreaginaren ondorio izango da edota familian bertan ikasten den indarkeriari egotziko zaio, eta indarkeria generazionala edota belaunaldiz belaunaldikoa aipatuko da. «El hombre que sea agresivo... pues no entiendo por qué» (ELK9).

Beraz, indarkeriaren arrazoiak aurkitzeko ahaleginetan ikusten dena zera da: kasu batzuetan berdintasun-ezari eta bere atzean dagoen sinesmen-sistemari erreferentzia egin arren, ez dela azpimarratzen balio-sistema hau kausa nagusitzat. «Me salgo del tema, ¿eh? Un poco. Por ejemplo, los maltratadores y todas esas cosas (...) Es una pasada: lo que veas en tu casa, eso hace un montón» (ELK9). «Están locos... esa gente que es maltratadora de por sí...» (ELK9). Horrela, bada, arrazoia botere-harreman hierarkizatuak ez izatean, kontraparteari ere begirada bat bota eta asko

¹⁷ Idem, 272. or.

¹⁸ Ibidem, 276. or.


¹⁹ EMAKUNDE: *Emakumeen aurkako indarkeria* [on line], Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2008, <http://www.justizia.net/docuteca/Documentos/4565violencia_e.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

injustizia oro maila berean kokatzera eramaten ditu, «Asko eta asko que son unos putos descerebraus (...) baina bebai beti emuten dau txarra dala tipua... aztertu bikozen dana... Que me parece mal de todas maneras, ¿eh? Gauzak ez die konpontzen holan» (ELK8).

Diskurtso honen baitan, batez ere, gizonezkoak kokatuko dira, nahiz eta emakumeen presentzia ere hor egon. Miguel Moyak dioenez²⁰, balio berdinkideen eta emakumeekiko geratzen diren balio zaharren artean kokaturiko neosexismoaz ariko ginateke hitz egiten. Batez ere, emakumeen aurkako diskriminazioa ez dela arazo larri bat —nahiz eta esparru batzuetan berdintasun-falta egon—, emakumeak gehiegi presionatzen ari direla eta lorpen asko beharrezkoak ez direla pentsatzen dutenen artean sartzen dira diskurtso horiek. «Nik ikusten dot askotan enpresetan jereente batzuk dia gizonak eta ikusten dot etxian igual askotan etxeko lanak eitten dabela emakumiak, bueno, horrek gauzak poliki-poliki juango die aldatzen, hori ezin dozu aldatu bengia ia! Ba poliki-poliki gizarteak eskatuko dau aldatzia» (ELK8).

²⁰ Ester BARBERÁ eta Isabel MARTÍNEZ: *Psicología y género*, Madril: Pearson, 2004, 279-280. orr.

Gazteak eta berdintasuna egunerokoan



GAZTE hauek berdintasunaren inguruko balio hauek eguneroko bizitzan eta esparru ezberdinetan nola ulertzen dituzten aztertzeraz joko dut jarraian. Hiru bloketan banatu ditut eguneroko esparruak: alde batetik, lana —ikasketak, lan ordaindua eta etorkizuneko espektatibak barne harturik—; bigarren blokean, aisialdia, kirola, musika, eta lagun taldea eta ohiturak; eta, azkenik, arlo emozionala, hezigune izandako familia- eta bikote-harremanak aztertuko dituenak.

Hori guztiori aztertzeko, aurretik aipaturiko bi diskurtso nagusi horiek oinarri hartu eta hiru kategoriaz bereizi ditut: diskriminazioarena, desorekarena —sistema-ikuspegitik eratorriak— eta, hirugarrena, desberdintasunarena, berdintasun-eza gai konkretuetara mugatzen dutenen ikusmoldea.

• Diskriminazioaren diskurtsoa

Diskriminazioa eta injustizia ikusiko dituzte desoreketan, eta egoera ezberdinak elkarri lotuta azalduko dituzte, antolamendu eta ideologia baten baitako puntu txikien modura. Era berean, emakumeei sortu ahal zaizkien muga eta oztopoen jabe izango dira. Ezberdintasuna bezala, berdintasuna erdiestearen ere egiteko estrukturala dela ikusiko dute, hots, egitura guztien eraldaketa suposatzen duela. Diskriminazioa esparru ezberdinetan gertatzen dela argudiatuko dute, desorekek sortzen duten ondorioa izanik.

Diskriminazio hitza bera, lanaren eta etxeko lanen esparruetan sarri agertu arren, ez dut automatikoki diskurtso honen baitako kontsideratu. Izan ere, gai hauetan egindako kanpainei eta sozializazio-lanari esker, barneratuta dago emakumeek diskriminazioa jasaten dutela, nahiz eta honek ez duen ekarri, inondik inora, diskriminazioa arrazoi estrukturaletan kokatzeko joera.

• Desorekaren diskurtsoa

Diskurtso hau darabiltenek, sexismoak desorekak eragiten dituela eta egunerokotasunean daudela argudiatu arren, hautemango dituzten desoreken kausatzat ez dute beti estruktura soziala joko; eta, sistema kausatzat jota ere, askotan ez dute kaltegarritzat joko. Eskubide argi batzuk zapalduak direnean, orduantxe kokatzen dira sexismoaren aurka. Beraz, matxismoaren kontrakoa baino, errespetuaren aldeko aldarrikapena darabilte. Bestalde, berdintasunarekiko duten ilusioa edo positibotasuna aipatuko nituzke diskurtso honen ezaugarritzat.

• Desberdintasunaren diskurtsoa

Desberdintasunaren logikan daudenak egongo lirateke hemen, hots, desberdintasunak ikusten dituztenak, emakume eta gizonen izateetan, jokatzeko eretan, bizitzeko eretan... eta horiek berezkotzat, naturalizat jotzen dituztenak.

Multzo honetan daudenek diskriminazioa esparru konkretu batzuetan gertatzen dela ikusiko dute, jendartearen gehiengoak onartu dituen eskubideen zapalkuntzak ekartzen dituen egoera zehatz horietan. Esaterako, indarkeriari dagozkien kasuetan edota etxeko lanen banaketari dagozkionetan.

Lana

Lana eta berari loturiko blokearen baitan, ikasketekin hasiko naiz. Izan ere, lan ordainduari begirako formakuntza-fase bezala ulertzen dira ikasketak.

• Ikasketak

Neska zein mutil gazteek ikasketak lanerako bide gisa planteatuko dituzte. Eta ikasketak aukeratzeko orduan, indefinizioa izango da joera nagusia. Horrek sexuka dauden norabide markatuei jarraitzeko joera handituko du; ikasketak, azken finean, lan-munduarekin duten lotura estuagatik, etorkizuneko desoreken lehen geltoki bihurtuko dira. Honen inguruko kezkarik ez da ageri Arrasateko gazte hauen artean. Hala ere, desorekaren diskurtsoan kokatzen dira asko: «Ikusten da hezkuntzan kortia eh, mutil eta neska. Mutilak askoz be bideratuago dauzela teknikora eta neskek ba, humanistikora» (ELK2).

Honen aurrean, elkarriketaturiko Arrasateko gazte gehienek ez dute ikasketen aukera emakumeek eta gizonek estrukturaliki izan ditzaketan funtzio sozialen ondorioztat ikusiko. Ondorioz, desberdintasunaren diskurtsoan geratuko dira. «Neska askok botaten dabe haurduntzara... ero bestelan irakaskuntza aldera ero... Eta zergatik? Ba eztaikit, imajinaten dot... pentsako dabe egin ingenieria edo holan, pentsako dabe moduluan eta holan, mantenimiento eta, grasa artian eta zikinan artian eta... izan bihar zara un poco burro, ez?» (ELK8). Erabaki pertsonal aske moduan identifikatuko dituzte tendentziok.

• Lan ordaindua

Alde batetik, lanaren ezinbestekotasuna diskurtso orotan guztiz barneratua agertzen da. «¡Y ya era hora! Saber que no puedes trabajar... ¡Madre mía!» (ELK9).

Bestalde, gazteen lan-esparruek sexuka banatuta eta balio maskulino eta femininoekin lotuta egoten jarraitzen dute. Horrez gain, diskriminazioaren diskurtsoa oso barneratuta dago, baina talka etengabe ageri da meritokrazia eta lehia askearen printzipioekin, eta, beraz, kristalezko sabaiak emakumeengan eragiten dituen oztopoak oso gutxi ikusten dituzte. «aukeria euki dau lana etxeko fabrian eta eztau hartu. —Ezin navelako (neska). —**Bale, ezinzauen, baina aukeria auki dozu, ezta eztozulako euki aukeria. Eta emon dotzue... [...]**—Orduan... eztaikit, ezta? Bueno, azkenian, ba eztaikit. Hori eurak (neskek) esango zauien zergatik naxau dabien umiakin egotea edo fabrika baten egotia. Ez dakit, nik eztozut esango. Nik eztaikit ze pentsaten dabien eurak» (ELK4).

• Etorkizuna

Etorkizunaren bideratzaile gisa ikusten dute lana, bai gizonak eta bai emakumeek, aurreko belaunaldietako emakumeetatik bereiziz. «Hartzen dozkuen lekuan, nik» (ELK3).

Aisialdia

Bigarren blokearen baitan, denbora librea eta ohiturak ukituko ditugu: bizitzaren esparru ez arautu horretan egiten den guztia.

• Kirola

Kirola egiteko orduan, emakume eta gizonak bultzada ezberdina izaten dutela agerian jarri da gazte hauen bizipenetan. «Kirolian beti ibili naz, txikitatik» (ELK8, mutila) vs. «Kalean hasieran izan zan en plan... barre eitteko kontu bat, ez? Baina... "Si no te pega, jeh!" "¿A quién le pega, pues?" Niri asko esaten zoztien eztoztu pegetan, ta zuri ze pegetan dotzu, ba?» (ELK7, neska). Horrez gain, motibazioak, kirola egiteko moduak eta abar ezberdin definitzen dituzte neskek eta mutilek.

Oro har, eta emakumeen kasuan, eurekiko arreta txikiagoa izan dela ohartu arren, ez dute desoreka- eta diskriminazio-esparru gisa ikusiko. Hala ere, adierazgarria izango da mutil asko ohartuko direla futbolarak euren nortasunaren eraikuntzan izandako indarrak. «Futbola. Esperientzia dramatikuenetakoa mutil moduen izan leike hori. Tristia da baina... gero aldatu zala, eh? Eskubaloiak emon zoztan nortasunan %40 edo, nire harrotasuna. Ez dozu imaginatzen ze humilantia izan laiken kirol baten bankiloan eotia, eta hor, atara azken 10 minututan eta mekauden dios eta eskubaloian kapitaina nintzen, ez dakizu? Desberdintxasun earra...» (ELK2).

• Lagunen taldea, ohiturak

Kuadrilismoa eta neska eta mutilen arteko banaketa dira ezaugarri nabarmenenak: Bakoitzak bere lagun-talde itxia izatea eta hori izatea bere esparru bakarra eta, bestalde, neskak eta mutilek, ohitura ezberdinak, rol ezberdinak eta abar izateagatik banatuta egotea.

Esan beharra dago ohitura eta lagun-taldearen arteko harremanak eta berdintasunaren inguruko gogoetak eta loturak gainerako esparruetan baino arruntagoak direla, eta, diskriminazioaren diskurtsoa darabiltenen artean ere, hausnarketa hau agerikoa dela. «Nahibozu sortua edo ez, baina izaeragatik eta normalian poteua bera markatzeko, jarrera hori bera. Poteua markatzeko ez dakit ardura edo hartzen dabie mutilek. Abiadura? Neskakin entzun behar izaten ditugu sekulako reprotxiak abiaduragatik. Die bi txorrada baina holan dekotzu... Gero ze geixa ixan laikien? Ba botiana... izan laike apur bat indiferente» (ELK2).

Bestalde, bikote-harremanek kuadrila hauen eraketa aldatzen dutela aipatzen dute behin eta berriz, urruntzeak gertatzen direlako, alde batetik, eta, bestalde, emakumeak, mutilen kuadrilara hurbilduz, beren lagun-taldeak alde batera uzten dituztelako. Bi kasuetan, norberaren esparrua izatea balio garrantzitsuen artean kokatzen da. «Kuadrilan, mutilak, bai. Hasiera baten on dala denboratxoa mutilak bakarrik. Gero mutilak hasten gara ke si neskek eta ke si eztakizer eta gero neska horrek be, gure... ba igual neskalagunak be euran artian ezagunak die eta askok jolasten dabe futbolien, o sea, mutil askok jolasten dabe futbolien, o sea, juten die asko futbola ikusten. Orduan, gero eitxen dabe han kuadrilatxo bat, eta bukatzen dabenien mutilak futbolan jokutzen juntaten die neskalagunak, mutilak eta gero etorten dira hona eta gu gaz hemen eta eitxen da como...» (ELK8).

• Musika

Musikak berebiziko garrantzia du Arrasaten: talde asko mugitzeaz gain, giro ezberdinak eta harreman-sare ezberdinak sortzeko puntua dugu. Hala ere, mutilen mundu gisa defini dezakegu, nesken parte-hartze oso-oso baxuarekin. Emakumeen artean, musika-mundura gerturatzea esfortzuarekin lotzen da, ezkutuko mugak agerian jarritz. Honela, askok berdintasunaren aldeko borroka gisa ikusiko dute. «Bagenekien ez gavela irabazi bihar, por supuesto, baina bueno, ba beti gabiz iguala, ba emakumiak gauzela hor erreprimiduta; ba ez, guazen apurtzera hori» (ELK5).

Esan beharra dago mutilen artean desoreken errealitate hau ez dela hautemango, eta gehienek ezberdintasunaren diskurtsoan kokatuko dutela. «Posibilidadia badaukie eta urten die neska taldiak. Baina zergatik ez dian animaten? Ba idearik ez. Igual lotsagaitxik» (ELK6, mutila).

Instrumentuak hautatzeko unean zein musika-estiloetan ere, sexu-banaketa agerian geratzen da.

Arlo emozionala

• Jasotako hezkuntza, familia

Aurrerapauso handiak izan dituen esparru bezala definitzen dituzte gazteek familiarena eta jasotako hezkuntzarena. Hala ere, sexismoaren eraginik badagoela ikus daiteke. Horien artean, esaterako, etxeko lanekiko zein beste konpromisoekiko mutilek jarrera utzikorragoa dutela salatzen dute neskek. «Nik etxian eitten dotela, urtetzen jatala gauza geixau aportatia etxera anaiak baino. "Hau jaso biot". Ba ikusten badot, jaso. Eta anaia gehixau doia a su bola, el rey de la casa, eztakitzu? Kafia eiten dau, kalera noia eztakize, ez jako urtetzen hor, esaten baotzazu igual eitten dau purrustaka baina...» (ELK5, neska).

- **Harremanak**

Orokorrean, harreman-eredu, jokatzeko era eta abarretan desberdintasunak hautematen dituzten arren, gehienak desorekaren diskurtsotik kokatzen dira, desberdintasunak naturalizatuz edota maila pertsonalera eramanez.

- **Sexu-harremanak**

Aurreko belaunaldietako borrokaren fruitu gisa, sexualitatea eta ugalketa erabat bereizita ageri zaizkigula ikus genezake. Hala ere, oraindik ere maitasunarekin lotura handia duela ikus daiteke. Bestalde, emakumeen gainean dagoen estigmak bere horretan jarraitzen du. Diskriminazioaren diskurtsotik azalduko dute hori gehienek: «Sartu dozku gizartiak gauza bat eta zu egon bizare tipo honekin eta ezin zara liau bestiak eta super txarto, pekatua eta... Azkenian bai dau hori, baina nik usteot aldatzen dauela: jentia askiaua dala, ero ya ez dabela nahi horrenbesteko loturia» (ELK5).

- **Ligatzeko eredu**

Elkarrizketaturiko gazteek eredu tradizionetik aldentze bat ekarri duten kasuak aipatzen dituzte behin eta berriz, esaterako, inizatiba hartzearen kontua edota gau baterako ligen kontua. Haatik, beren horretan mantentzen diren kontrol sozialaz, etiketatzeaz zein intimidazioaz kexu dira. «Beste topikua, baina mutil ligoia es el jefe, eta neska ligoia golfa bat da, hori be super sartute, nik esango neukela hori dauela super sartute» (ELK1).

- **Itxura**

Ligatzean, itxurak eduki dezakeen garrantzirik haratago, pertsonak munduan kokatzeko duen bitarteko gero eta indartsuagoa da, askotan, gazteengan presio zein mugapenetako bide izateraino. Presio hori guztiengana zabaltzen ari den arren, emakumeek bereziki bizi eta sentitzen dute, jasaten duten presio erantsiagatik. «Igal presiñua neska izanda itxura aldetik... Eztakit, mutilak dira baldarrauak. Eztakize, potruak arraskau, ez? Neskak beti mantenidu bidou la línea de... txukun, eztakizer...» (ELK5).

- **Bikotean**


Bikotea izatearen garrantzia bere horretan mantentzen da; bikote heterosexuala, gainera, jendarteko oinarri legez agertzen da.

Bikoteen baitan, harreman-eredu ezberdinak aurki genitzake. Autonomia, esaterako, gero eta gehiago baloratzen den kontu bat bihurtzen ari da, baina, era berean, kezkatzekoa da rol tradizionalak erreproduzitzeko dagoen joerak ere hor jarraitzen

duela gogor —dependentziazko harremanak sortzen dituela—. «Ezpadau mutil hori, bere bizi proiektu guztia desagertzen da, eta hori niretzako bikote harremanen topiko handixena da, ez? O sea, bikote-harremana da helburu bakarra, bizitzan inportantie dan gauza bakarra. Gainerako guztien, bakarrik nau» (ELK1).

Bikoteengan, monogamia eta behin-behinekotasuna izango dira balio nagusi. Bikotekidea bizi osorako proiektu gisa ez ikusteak askatasun-tarte gehiago ekarri dizkie kideei. «Si estás con un hombre, respetarle y estar bien, si no estás bien, dejarlo y no sufrir. O sea, en realidad por ti, ¿no? Que solo se vive una vez. Eso lo hablamos mucho nosotras (...) Él se lo tomó mal, pero ella le decía que era por el bien de los dos (...) Tampoco vas a estar con la persona por pena o por la familia o algo (...) Que si has hecho mal, has hecho mal, pero bueno, has aprendido» (ELK9).

Ondorioak



BEHIN diskurtso-analisia eginik, diskurtso horien atzean aurki genitzakeen pertsonen mintza gaitezke oraingoan. Marcos Engelken-Jorgeren zatiketari jarraiki, alde batetik, subjektu eraldatzailea izango dugu. Diskriminazioaren diskurtsoa erabiliko du ahotan. Sexismoa egunerokotasunean eta bizitzako esparru ezberdinetan identifikatzeko gai izango da. Subjektu eraldatzaileak sistemaren baitako kontsideratuko ditu diskriminazioak, bai sexismoa erreproduzitu, bai eraldatzeko.

Bigarrenez, subjektu zinikoak izango ditugu, nolabait deitzearren: sexismoa sistema gisa ikusiko dute, eta berau denongan erreproduzitzen dela. Hala ere, osotasunean, kaltegarria ez dela baloratuko dute. Desorekak ikusi eta termino hauetan mintzatu arren, esparru askotan gerta daitezkeen gorabeherak txikikeriatzat joko dituzte, batez ere, giza eskubideak larriki erasotzen ez direnean. Horrela, aldaketa batzuk planteatu eta bultzatu arren, ez dira eraldaketa osoaren aldeko agertuko.

Hirugarrenik, subjektu autoengainatua aipatu beharko genuke. Diskriminazioa ikusi eta salatu arren, berdintasun-nahiarri zein askatasun-sentsazioari helduko die etengabe, zapalketa zein desoreka ororen aurrean dugun askatzeko ahalmenari eutsiz. Horrelakoek, bada, berdintasuna erreal dela kontsideratu eta norberak duen askatasunean sinesteagatik, sexismoaren muga asko ohartu gabe apurtuko dituzte askotan. Borrokaren lehen lerroan kokatu gabe, baina ilusio horri jarraiki, euren bizitzak aske egiten dituzte.

Azkenik, subjektu desinformatua dugu. Arazoa ez du estrukturaltzat joko, eta desberdintasunak, ikusi arren, natural eta berezko gisa azalduko ditu. Autokritikarako gaitasun gutxi izango du, eta erantzukizunak kanpoan kokatzeko joera. Pasibitatea eta gizarteko balioen erreprodukzioa izango dira subjektu honen ezaugarriak²¹.

Ondorioz, diskriminazioa osotasunean gutxi ikusten dutela esan beharko genuke eta, beraz, eraldaketa handiak egiteko pertsona potentzialak direnak ez dira asko. Oro har, feminismoaren premisa askorengandiko distantziamendua ikus daiteke. Besteak beste, borrokak kontu pertsonal gisa ulertzeagatik (eta ez kontu sozial-politiko gisa) zein identitate sexualarekiko atxikipen handia egoteagatik. Debeku espresurik ez egotean, ez dira hain argi ikusten arau sozialek eragiten dituzten obligazioak, eta berdintasuna errealtzat jotzen da askotan. Hala ere, pentsamendu osoan eragina ari dira izaten gutxi horien ideiak eta, beraz, aldaketa gertatzen ari da.

Bestalde, laneko zein etxeko lanen banaketek sorturiko diskriminazioa guztiengan

²¹ Marcos ENGELKEN-JORGE: "La fantasía del discurso y el deseo del sujeto [on line]: acerca del sujeto de la ideología", <http://ehu.academia.edu/MarcosEngelkenJorge/Papers/73315/La_Fantasia_del_Discurso_y_el_Deseo_del_Sujeto._Acerca_del_Sujeto_de_la_Ideologia>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

barneraturik dagoen mezua da, nahiz eta argumentazioan kontraesanak azaldu, kristalezko sabaiaren ingurukoak, esaterako.

Horrez gain, berdintasuna, aukera berak izateaz baino, gauza berak egitearekin lotzen da sarritan, eta ezberdintasunak meritokraziari zein erabaki pertsonalei lotzen zaizkie. Berdintasuna, beraz, uniformitatearekin lotzeko joera dago, horrek dituen arriskuekin, adibidez, maskulintzat jotako balio asko zabaltzea eta indartzea emakume zein gizonengan. Sistema ekonomikoak ezarritako hierarkiekin jarraituz, balio batzuk baloratuagoak dira, eta pribilegio eta askatasun gehiago ekartzen dituzte, besteak gutxien diren bitartean.

Arriskuekin jarraituz, ezin esan gabe utzi, oraindik orain ere, esparru asko pribatu eta pertsonaltzat jotzen direla eta ez estruktura sozialen eraginpeko. Horrela, borroka ere pertsonaltzat eta subjektibotzat jotzen da. Bestalde, ikus daiteke sexismoa gaingintuago dagoela idealean praktikan baino, eta eguneroko bizitzarekin lotzeko zailtasunak agertzen dira.

Alde positiboa mahai gainera ekarri nahirik, lorpenak ere ugariak izan direla esan beharra dago. Alde batetik, emakumearen integritasunaren inguruko dudarik eza dugu, hots, erabakitzaile eta edozertarako gai den uste argia. Bestalde, indarkeriaren, etxeko lanen banaketaren, laneko desabantailen zein homosexualitatearen inguruan izandako jarrera-aldaketak txalogarritzat jo beharko genituzke. Bide beretik, roletan gertatu den malgutzea izugarrizkoa dela ezin da esan gabe utzi. Askatasuna izanik balio nagusi, eredu maskulino eta femenino mugatzaileak hausteko joera zabaldu egin da, "self made man/woman" ideologiaren lekuko.

Emakumeek eta gizonek gauza bera diote?

Aztertu beharreko beste kontu bat da emakume eta gizonen diskurtsoen artean alderik ba ote dagoen. Honela, bada, hauek izan dira ondorioak.

Lehenik eta behin, agerikoa da berdintasunaren aldeko edozein mezuk emakumeengan eragin handiagoa egiten duela, bizipenek emandako sententziak hor daudelako, besteak beste.

Eraldaketa handiak bilatu eta borrokaren lehen lerroan jarraitzea baino, orain arte egindako lorpenak finkatzea dute helburu. Arintasunaren eta eskaera anizkoitz zein kontraesanen aurrean, lasaitasuna eta oreka da bilatzen dutena emakume gazte gehienek, etekinez disfrutatzea. Baina hori oso argi izanik, ez daude, inola ere, orain arte lorturikoa galtzeko prest.

Emakumeak euren buruaren jabe sentitzen dira eta, ekonomikoki horrela izan dadin, esaterako, horretarako baldintzak bermatzea ezinbestekotzat jotzen dute. Hala ere,

zuzenekoak ez diren exijentziak zein indarkeria sinbolikoa identifikatzeko zailtasunak ikusten dituzte, eta arlo hori lantzea ezinbesteko bilakatzen da, autoestimuan duen eragin zuzenagatik, besteak beste.

Gizonen diskurtsoei dagokienez, emakumearen subjektu-izaera barneratuta daukate, bai behintzat diskurtso-mailan.

Sexismoa eta desoreka ikusteko zailtasun gehiago azaltzen dute, eta, askotan, emakumearen izaerari erreparatzen diote kausak aztertzean. Ondorioz, sistemaren logikatik urrunduta eta erantzuleztat emakumea jartzen dute.

Maskulinitateak eurengan duen eragina aztertzea asko kostatzen zaie eta aldaketek eurengan izan ditzaketen onurak ez dituzte ikusten; hori dela eta, jarrera beretan mantentzeko joera handiagoa dute. Gizon bezala, sexismoak sortzen dizkien mugei aurre egiteko gaitasun handiagoa adierazten dute emakumezkoek baino.

Azken gogoetak

“Berdintasunean eta askatasunean hezitako belaunaldi” gisa definitu dute askok geurea, eta hori berori berretsiko nuke nik neuk ere. Askatasun- eta berdintasun-ilusio horrek hain gogoko ez dugun guztia ezkutatzeko joera hartzeraino eraman gaituela gaineratuko nuke. Hitzak barneratu eta, hori gutxi balitz moduan, gure bizitzen zuzentzailetzat hartu ditugu, euren zentzua ondo ulertu barik. Itxura denez, gure gurasoen borrokarekin bukatu ziren ideologia (Fukuyama) eta borroka guztiak... eta guri horietaz gozatzea besterik ez zaigu geratzen. Baina ez al gaitu pertzepzio horrek bere baitan kateatzen, —lortua edota ia lortua dela pentsatzeak...— askatasunaren edota berdintasunaren zentzua guztiz hustu eta ezerez bihurtzeraino?

Berdinak garela esan digute behin eta berriz, eta desberdintasunei beldurra hartu diegu²², «ezberdinak gara» esateari beldurra, eta horrek gehiago desberdindu gaitu. Askeak garela esan digute, nahi duguna egin dezakegula, eta horrek askatu egiten al gaitu? Bitartean, askatasuna bilatzeko biderik egiten ez dugunean? Jendartearen arauen baitan zurruta eta era uniformean, guztiok berdina-berdina mugitzera besterik ez gaitu eramango horrek guztiak, gure baitan askeago garela ere sentitzeko gai izan gabe.

Lehen, “koakzioaren patriarkatuan” bizi ziren, non ageriko errepresio eta debeku esplizituak zeuden. Gaur egun, aldiz, Alicia Puleok defenditzen duen bezala, hainbat eta hainbat estatutan idatzizko lege debekatzaila asko desagertu direnean, “kontsentimentuaren patriarkatura” pasatu gara, non aukera askea dugun teoriarik nahi duguna egiteko eta legeak ez diren esplizituki sexistak. Baina, tradizio, aurreiritzi, ohitura eta organizazio

²² Geneviève Fraiseren hitzetan, «En un principio había miedo a la igualdad, ahora lo que se teme es la diferencia». *Cansadas de tanto neofeminismo y políticamente incorrectas*, Zaragoza: La Revuelta, 2007.

sozialek sexistak izaten jarraitzen dute —eraldaketak mantso doaz!— eta, beraz, guk geuk geure burua erreprimitu eta sexismo hori jazartzen jarraitzen dugu, sistema mantentzen. Hau izango litzateke beraz, patriarkatuaren bilakaera eta sutilago bihurtzearen tranpa²³.

Feminista askok aipatzen duten moduan, borroka latzenak eta handienak geure buruarekin ditugu. Isiltzen eta ez protestatzen irakatsi digute, ez garela hain baliodunak... eta gu gara hau egin behar dugula sinetsi arren, edo ez sinetsita ere, gehienetan egiten dugunak. Hala ere, desberdintasunak sentitzeko gai gara, askatasun-eza bizitzeko guk nahi duguna, geuk benetan aukeratua dena, egitean. Eta horrek, modu ez hain kontzientean, ziurrenik, mugimenduan jartzen gaitu; maila pertsonalean, gehiegitan, kolektiboan lantzen hasteak bertigoa ematen baitigu. Askatasun pertsonal horren mugapenak ikusteagatik, agian? Nork jakin!

Oraindik orain, pertsonak garelako eta beharrak mugitzera, aldatzera, kuestionatzera garamatzalako aldatzen dihardu guztiak. Errepikapena bera ere transgresio izan daitekeelako, emandako esanahietan baitago gure askatasuna²⁴. Bizipenak, interpretazioak, ereduak, balioak... aldaraztera eramaten baikaitu. Henryk edo Braithwaitek (2002) aipatuko dute hori diskurtso feministaren orokortzea dela, eta praktika feminista espazio indibidualera mugitu dela; eguneroko bizitzan egongo litzateke aldarrikapen feminista, jarrera eta jokabideak aldatuz²⁵. Geu pertsonalenean, betikoan.

Aukera-berdintasunaren atzean estereotipoak eta espektatibak daude, pertsonak libreki jokatzeko mugatzen gaituztenak (estruktura formal zein informalak, onarpen sozialaren eta presio sozialaren bidez mantenduak). Diskurtsoetan, bizitzeko modu guztiak legitimoak direla ikusi dugun arren, konprobatu ahal izan dugu batzuk onartuak direla, eta besteak ez hainbeste. Batzuk hobeto ikusiak direla, jendartearen oniritzia dutela; beste gai batzuk, ostera, ez horrenbeste. Berdintasun hori izango litzateke, azken batean, estigmatik gabe eta, bizitzeko modua edozein izanda ere, lasaitasunean eta onarpen osoz bizi ahal izatea.

Kontua eredu berriak zabaltzea dela esaten dute askok; maskulinitate eredu berri baten beharra ere entzuten dugu... Baina ereduak ez al dira ba beti kajoi bihurtzen? Kajoi berriak sortzen ditugu kajoi handiagoei aurre egiteko. Maskulinitate-tailerreko teknikariak esango digun bezala, «Ni saiatzen naiz ereduak ez ematen. Ze ereduak beti dira kajoiak. Kontua ez da gizon berriak egitea, maskulinitate berriak asmatzea,

²³ FORUM FEMINISTA MARÍA DE MAEZTU: "Retos del feminismo ante el siglo XXI". In *Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak. IV Jornadas Feministas de Euskal Herria*, Portugalete, 2008ko apirilaren 12a eta 13a [on line], <http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/16773/original/Euskal_Herriko_IV_Jardunaldi_Feministak.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

²⁴J. Butler: *Lenguaje, poder e identidad* (itzulpena eta hitzaurrea, Javier Sáez eta Beatriz Preciado), Madril: Síntesis, 2004.

²⁵María MARTÍNEZ GONZÁLEZ: "Jóvenes y feminismo: ¿hacia un feminismo de la 'subversión'?", *Inguvuk: revista de sociología* (Bilbao), 43 (2008), 101. or.

kontua da armadura kentzea, ikasitako kaka kentzea eta gu geu izateko lekua bilatzea. Hori da kontua. Eredua izatekotan izango zan jarrera bat, ez?, zintzotasunan alde, ni naizena naiz, naizen moduan nago eta hori ahalik eta modu zintzoagoan agertu ahal izatea eta ahalik eta argien izatea besteak ere gauden lekuan gaudela, ez? Ni, alde batetik, agertu banaiteke pixka bat gehio naizen bezala, netzat ona da. Baina baita ere laguntzen du besteak ikusteko orduan ez izatea... beraien baino gehio izan nahi izatea, edo beraien ginetik egotea edo arrazoia nik daukat eta zuk ez, jutea... ikastea... Ez. Beitu jendea non dagon, nola, ulertzea denok ai geala kriston borroka iten. Eta zapalketak eragin dizkigula guztioi. Sexismoak kaltetu ditu emakumeak baina baita gizonak ere, eta ikastea bakoitzak zer modutan in dion aurre horri, ez?» (AD5).


Ildo beretik, Emakundek adierazitakoari jarraiki, «Ez da kontua emozionalagoak izatea, ezta gizon batzuekin dugun harremana hobetzea, ezta transformazio pertsonalak egitea ere. Landu behar den emozionalitatea ez da sentiberagoak izatearena, baizik eta bestearen beharrekiko sensibleago izatea. Norberarengandik ateratzea. Ikustea gizonen jarrerak zer eragin daukaten emakumeengan. Posizio rolak aldatzea»²⁶. Honela, maskulinitate-eredu berriez mintzatu ordez, feminitate eredu berriez, egungo ereduak malgutzea izango da lehen pausoa, bakoitzak bereak bila ditzan. «Neretzat balio duena, beretzat ere baliozkoa da. Neretzat subjektu gisa onartzen dudana, berari ere onartuko diot. Eskatzen dudana, eman egingo dut eta ez badut ematen, zergatik eskatzen dut? Eta jasotzen dudana... banatu egingo dut»²⁷. Azken batean, elkarbizitza ahalik eta osatuenerako beharrezko diren balioak landu beharko genituzke, maskulino edo femeninoak, neskek edo mutilek egin behar dutenaren ginetik.

Esandakoak eta exijiturikoak norberaren baitara ekarriz, Emakume Txokoko Teknikariek esan eta feminista askok aipatua izan den bezala, feminismoaren bidea norberaren baitan aplikatzea prozesu luzea da, formatzen zoazena, eztabaidatzen, hausnartzen. «Betaurrekoak jantzen ditugu eta ikusi, begiratu... eta ikusten duzun errealitatea alderantziz dela ohartu, bizi duzuna ezberdin ikustea, guztiaz nahastu, kendu, berriz jantzi, harremanak hobetzen saiatu, zure izatea eraikitzen, pertsona hobea izaten» (AD4). Bizi-ikuskeraz ezberdina izango litzateke, balio batzuk, jokatzeko era batzuk indartu, eta besteak alde batera uzten dituenak. Berdintasuna eta justizia izango lirateke, termino handitan. Tresnak ematen dizkizu gertatzen dena ulertzeko, zarena, nahi duzuna. Tresnak eta baita etsaiak ere, niretzat, behintzat. Konturatu arte barnean dugula patriarkatua, gure baitan. Etsaia, orduan, zu zeu izatera pasatu arte. Deseraiki, guztia hautsi eta nor da geratu den hori? Nolakoa da? Eta... aiba! Gona jantzen amaitzen duzu berriz ere, sekuentzia arrazional guztia egin ondoren. Zuk zeuk aukeratu duzulako oraingoan, gaurkoan. Berriz gona horregatik gaizki pasatzerik ez duzulako nahi, baina, are gutxiago, gona etxean hautsa hartzen gera dadila, jantzeko irrikitan zaudenean.

²⁶ EMAKUNDE: *Emakunde* [on line] (Vitoria-Gasteiz), 69 (2007), <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-rev79con/eu/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/emakunde69.pdf>.

²⁷ *Ibidem*.

Bibliografia



Liburuak

- ALARIO, Teresa eta Carmen GARCÍA: *Persona, género y educación*, Salamanca: Amarú Ediciones, 1997.
- ALBERDI, Inés; Pilar ESCARIO, eta Natalia MATAS: *Las mujeres jóvenes en España*, Bartzelona: Fundación "la Caixa", 2000.
- ALTAMIRA, Carlos: *Términos críticos de sociología de la cultura*, Buenos Aires: Paidós, 2002.
- BARBERÁ, Ester eta Isabel MARTÍNEZ: *Psicología y género*, Madril: Pearson, 2004.
- BEAUVOIR, Simone de: *El segundo sexo*, Madril: Cátedra, 2005.
- BUSTELO, María: *La evaluación de las políticas de género en España*, Madril: Catarata, 2004.
- BUTLER, J.: *Lenguaje, poder e identidad* (itzulpena eta hitzaurrea, Javier Sáez eta Beatriz Preciado), Madril: Síntesis, 2004.
- Políticas del performativo* (itzulpena eta hitzaurrea, Javier Sáez eta Beatriz Preciado), Madril: Síntesis, 2004.
- CACACE, Marina: *Mujeres jóvenes y feminismo. Valores, cultura y comportamientos frente a frente*, Madril: Nancea Ediciones, 2006.
- Cansadas de tanto neofeminismo y políticamente incorrectas*, Zaragoza: La Revuelta, 2007.
- ELZO, Javier; Carles FEIXA, eta Esther GIMÉNEZ-SALINAS: *Jóvenes y valores, la clave para la sociedad del futuro*, Bartzelona: Fundación "la Caixa", 2006.
- EMAKUNDE: *Emakumeen aurkako indarkeria* [on line], Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2008, <http://www.justizia.net/docuteca/Documentos/4565violencia_e.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]
- EMAKUNDE: *Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida* [on line], Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2006, <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/eu/contenidos/informacion/pub_guias/eu_emakunde/adjuntos/guia_maltrat06_e.pdf>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]
- EMAKUNDE: *Modelos y referentes de los comportamientos masculinos y femeninos en la juventud vasca*, Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2001.
- Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak. IV Jornadas Feministas de Euskal Herria, Portugalete*, 2008ko apirilaren 12a eta 13a [on line], <http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebooks/16773/original/Euskal_Herriko_IV_Jardunaldi_Feministak.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

- JUARISTI, Patxi: *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*, Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 2003.
- MACIONIS, J.J. eta K. PLUMMER: *Sociología*, Madril: Prentice Hall, 1999.
- MALO, Marta (ed. eta oharrak): *Nociones comunes. Experiencias y ensayos entre investigación y militancia*, Madril: Traficantes de Sueños, 2004.
- MARTÍNEZ, Zesar: *Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza: globalizazio neoliberalari buruzko diskurtso sozioideologikoak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003.
- MELLÓN, Joan Antón: *Ideologías y movimientos políticos contemporáneos*, Madril: Tecnos, 1998.
- Mujeres jóvenes: el avance hacia la igualdad: seminario realizado en la Universidad Internacional Menéndez Pelayo (UIMP) del 17 al 21 de septiembre de 2001*, Madril: Instituto de la Mujer, 2002.
- RINCÓN, Ana: *Hezkidetza Euskal Autonomi Erkidegoan. Bilakaera eta etorkizuneko estrategiak*, Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2005.
- URTXINTXA ESKOLA: *Arrasaten hezkidetza lantzen: hezkuntza hezkidetzaille oso baterantz*, Arrasate: Udalaren Hezkuntza eta Aukera Berdintasunerako Saila, 2006.
- VALLES, Miguel S.: *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexiones metodológicas y práctica profesional*, Madril: Síntesis, 1999.
- ZABALA, Begoña: *Movimiento de mujeres, mujeres en movimiento*, Tafalla: Txalaparta, 2008.

Artikuluak, ponentziak eta aldizkariak

- AGUIRRE CALLEJA, Ana Cristina; Angélica BENAVIDES ANDRADES, eta Joan PUJOL TARRÉS: "El sujeto político como acción performativa. Una propuesta para el estudio de la acción política". In *Repensando los 40 años de mayo del 68 [CD-ROM] / 1 Jornadas de Análisis Político Crítico*, Bilbao: Eusko Jaurlaritz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, 2008.
- ALCÓN, Rosa eta Marta DOMÍNGUEZ: "Del superpostfeminismo al sentido común y la vida cotidiana" [on line], <http://www.mosaico-web.com/unilco/index.php?option=com_docman&task=doc_download&gid=81>. [Kontsulta: 2008ko uztaila.]
- BARBERÁ HEREDIA, Ester: "Análisis de los estereotipos de género", *Investigaciones psicológicas* (Madril), 9 (1991), 145-165. orr.
- COL-LECTIU DE DONES JOVES DESOBEDIÈNCIA: "Mujeres jóvenes: iguales ¿en qué? feministas ¿para qué?". In *Jornadas Estatales Feministas Juntas y A Por Todas*, Madril: Federación de Organizaciones Feministas del Estado Español, 1994, 233-238. orr.
- EMAKUNDE: *Emakunde* [on line] (Vitoria-Gasteiz), 66-73 (2007-2008), <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/sen_revista/es_emakunde/revista_es.html>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]
- ENGELKEN-JORGE, Marcos: "La fantasía del discurso y el deseo del sujeto [on line]: acerca del sujeto de la ideología", <http://ehu.academia.edu/MarcosEngelkenJorge/Papers/73315/La_Fantasia_del_Discurso_y_el_Deseo_del_Sujeto._Acerca_del_Sujeto_de_la_Ideologia>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]
- EUSKO JAURLARITZAREN PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA: *Gazteen argazkiak* [on line] (Vitoria-Gasteiz), 11 (2008), <http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/retratos_de_juventud_11/eu_retjuv11/adjuntos/07retratos11.pdf>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]
- GARAZABAL, Cristina "Identidad: cuerpo, género y subjetividad". In BECERRA, Antonio: *Transexualidad: la búsqueda de una identidad*, Madril: Ediciones Díaz de Santos, 2003, 235-244. orr.
- GARRIDO COURIEL, Maite: "Feminismo: Una historia no contada", *Frida: revista de mujer* (Bilbao), III-IV (2008), 32-39. orr.
- GIL RODRÍGUEZ, Eva Patricia: "¿Por qué le llaman género cuando quieren decir sexo? [on line]: una aproximación a la teoría de la performatividad de Judith Butler", *Athenea Digital* (Bartzelona), 2 (2002), 30-41. orr., <<http://psicologiasocial.uab.es/athenea/index.php/atheneaDigital/article/view/50/50>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

JABAT TORRES, Edurne: "El enamoramiento y el deseo como prácticas de incorporación del sexo y el género", *Inguruak: revista de sociología* (Bilbao), 43 (2008), 117-140. orr.

Las mujeres en el año 2000: hechos y aspiraciones: ponencias y conclusiones. Seminario organizado por el Instituto de la Mujer, 11 y 12 de mayo de 2000, Madril: Instituto de la Mujer, 2000.

LOMAS, Carlos: "El aprendizaje de las identidades femeninas y masculinas en la cultura de masas", *Textos de didáctica de la lengua y de la literatura* (Bartzelona), 28 (2001), 35-51. orr.

LURIA, Zella: "Determinantes psicosociales de la identidad genérica, del rol y de la orientación". In KATCHADOURIAN, H.A.: *La sexualidad humana, un estudio comparativo de su evolución*, Mexiko: Fondo de Cultura Económica, 1993, 193-228. orr.

MARTÍN LUENGO, Josefa: "Feminismo y anarquismo" [on line], <<http://www.paideiaescuelalibre.org/Textos%20publicados%20en%20web/Feminismo%20y%20anarquismo.PDF>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

MARTÍNEZ GONZÁLEZ, María: "Jóvenes y feminismo: ¿hacia un feminismo de la 'subversión'?", *Inguruak: revista de sociología* (Bilbao), 43 (2008), 101. orr.

MONTAÑÉS SERRANO, Manuel: "La producción de sentido" [on line], <http://www.redcimas.org/archivos/tecnicas_diagnostico/la_produccion_de_sentido.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

PINEDO FERNÁNDEZ, José Antonio: "Hacia un estudio psicosocial de la identidad de género: creencias, valores, emociones y representaciones sociales de la masculinidad y feminidad", Zuzendaria: Agustín Etxeberria Echabe. [Tesia.] Euskal Herriko Unibertsitatea, s.l., 1994.

RINCÓN, A. (koord.): *Congreso Internacional Sare 2005* [on line]: *Niñas son, mujeres serán*, Vitoria-Gasteiz: Emakunde, 2006, <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/pub_jornadas/es_emakunde/adjuntos/sare2005_es.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

SENDÓN DE LEÓN, Victoria: "Retos del feminismo ante el siglo XXI" [on line], <http://www.nodo50.org/mujeresred/victoria_sendon-feminismos_sigloXXI.html>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

SOLER GALLART, Marta; Ainhoa FLECHA; María Ángeles SERRANO, eta Laia COSTA: "Repercusión en Estados Unidos del debate sobre las otras mujeres". In MULET TROBAT, Bartomeu (koord.): *Sociología de l'educació: cultura i pràctica escolar: les reformes actuals*, Palma Mallorcaria: Universitat de les Illes Balears, 2004, 71-76. orr.

ZILBETI, Mainer eta Eva MARTÍNEZ: "Emakumeen boteretzeta [on line]: saiakerak eta zailtasunak", *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria* (Bilbao), 61 (2007), 11-13. orr., <http://www.uztaro.com/uztaro_fitxategiak/940_61.4.Cilveti.pdf>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Webguneak

Aldarte: Gay, Lesbiana eta Transexualen Arreta Zentrua. Eskuragarri on line: <<http://www.aldarte.org>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

Arrasateko Bilgune Feminista. Eskuragarri on line: <<http://goiena.net/blogak/bilgunefeminista>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

Artxibo feminista. Eskuragarri on line: <<http://www.artxibofeminista.org>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Asociación de Mujeres de Basauri. Eskuragarri on line: <<http://www.blogoneskak.net>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Ciudad de Mujeres. Eskuragarri on line: <<http://www.ciudaddemujeres.com>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea. Eskuragarri on line: <<http://www.emakunde.es>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

European Values Study. Eskuragarri on line: <<http://www.europeanvaluesstudy.eu>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

GazteFeministak: Kuleroak burura salto mundura. Eskuragarri on line: <<http://gaztefeministak.blogspot.com>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

GazteSarea, Euskal Herriko Gazteon Ataria. Eskuragarri on line: <<http://www.gaztesarea.net>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa. Eskuragarri on line: <<http://www.emakumeak.org/es>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Monstruación: Laburmetraia / El cortometraje 100% autogestionado. Eskuragarri on line: <<http://monstruacion.blogspot.com>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

Mujeres en red: El periódico feminista. Eskuragarri on line: <<http://www.mujaresenred.net>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

Por los buenos tratos. Eskuragarri on line: <<http://www.porlosbuenostratos.org>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

Sextabaida. Eskuragarri on line: <<http://www.sextabaida.net>>. [Kontsulta: 2008ko maiatza.]

Sin género de dudas. Eskuragarri on line: <<http://singenerodedudas.com>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

Urtxintxa Eskola. Eskuragarri on line: <<http://urtxintxa.org>>. [Kontsulta: 2010eko abendua.]

Artikulu
honetan, Arrasateko
22-27 urte bitarteko gazteek
berdintasunaren inguruan duten
iritzia aztertzen da. Alde batetik, termino
orokorretan, printzipio gisa dituzten usteak
azaltzen dira, bai eta horien baitan indar gehien
duten bi diskurtsoak ere: bata, berdintasuna
sistema eta ideologia oso batean kokatzen
dutenena; bestea, berdintasuna gai konkretuetako
afera gisa ikusten dutenena. Bestalde, berdintasun
hori euren egunerokotasunarekin lotu eta horren
inguruan egiten dituzten interpretazioak azalduko
dira. Azkenik, diskurtso nagusi bi horietatik
sorturiko hiru kategoria aztertzen dira, hots,
desberdintasunaren diskurtsoa, desorekarena
eta diskriminazioarena.

